

## **2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.**

# Testua.

Texto reproducido con el permiso de SM Editorial



**Bibliako liburu batzuen datak**

<b>Itun Zaharra (K.a.)</b>	
800	Amos
780	Oseas
570	Jeremias
400	Pentateukoa (amaiera)
200	Tobit
115	Makabearrak
50	Jakinduria
<b>Itun Berria (K.o.)</b>	
50	Gutuna tesalonikarrei
60	Santiagoren gutuna
70	Markosen ebanjelioa
80	Mateoren ebanjelioa
90	Joanen ebanjelioa
95	Apokalipsia

**K.a. XIX-XV. mendeak**  
**GARAI PATRIARKALA**  
 Tribu nomadak Tigris ibaiaren ertzetatik Kanaango lurretara joan ziren. Abeltzainak ziren eta klanetan banatuta zeuden, nagusi edo patriarka baten agindupean. Kokatu ziren tokietan beren jainkoen omenezko santutegiak eraiki zituzten.



**K.a. XV-XII. mendeak**  
**IRTEERA**  
 Milaka hebrear Egiptora joan ziren eta han esklabo bihurtu zituzten. Egipton izandako krisialdi bat aprobetxatuta Kanaango lurretara itzuli ziren, basamortua zeharkatuz. Sinai mendian Jainkoak ituna egin zuen bere herriarekin.

**K.a. XII. mendea**  
**ERATILEEN GARAI**

**K.a. X. mendea**  
**MONARKIA**



GAIA	ERLIJIOA				
MAILA	DBH. 3. MAILA				
IKASTETXEA	Alaitz				
DEPARTAMENTUA	Erljioa				
IRAKASLEA	Cristina Barrenetxea				
<b>JATORRIA</b>					
EGILEA	Javier Cortés, Miguel Angel Cortés, Samuel Forcada				
IZENBURUA	EMAUS				
ARGITALETXEA	SM ARGITALETXEA				
URTEA	2007				
ORRIALDEA(K)	143				
ISBN	9788467518313				
<b>TESTU-MOTA</b>					
OINARRIA	Idatzitako testua				
FORMATOA	etenak				
MOTA	taulak				
ERABILERA	hezkuntzakoa				
<b>ESTRATEGIAK</b>					
IRAKURRI BAINO LEHEN	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>HELBURUAK:</b> zertarako irakurtzen ditugun taula hauek: <ol style="list-style-type: none"> <li>a. Bibliari buruzko <b>informazio zehatza</b> lortzeko.</li> <li>b. Bibliaren atalak, liburuak, historia eta pertsonaia nagusiak <b>ikasteko</b>.</li> </ol> </li> <li>2. <b>HIPOTESIAK:</b> konturatzea hiru taula hauen bitartez, bai <b>irudien</b> bitartez, baita barruko <b>testuen</b> bitartez ere, Bibliaren egitura eta edukiari buruzko <b>informazioa</b> jasoko dugula.</li> </ol>				
IRAKURRI BITARTEAN	<ol style="list-style-type: none"> <li>a. <b>AURRETIKO EZAGUTZEN ERABILERA:</b> Aurreko ikasturtetan ikasleek gai honi buruz jaso duten informazioa berreskuratuz: Biblia, bere atalak, bere edukia, etabar.</li> <li>b. <b>EGITURAREN AZTERKETA:</b> Hiru taula direla konturatuz gero, hiruren arteko <b>lotura</b> logikoak aztertuz, taula bakoitzak duen <b>barne estruktura</b> aztertuz, barruko <b>informazioa</b> ulertuz, bakoitzaren <b>edukia</b> beste bi taulakoekin <b>erlazionatuz</b>.</li> </ol>				
<b>JARDUERAK</b>					
Informazioa bilatzea edo eskuratzea .	1.	Bete taula honen hutsuneak marrazkiko informazioarekin:			
		<b>LIBURU BIBLIKOA</b>	<b>LABURDURA</b>	<b>ZER TALDEAKO DA</b>	<b>ITUNA</b>
		Joan			
			Tb		
		Judas			
			1 Tm		
		Irteera			
			Dn		
Apokalipsia		Apokaliptikoa			

	Erantzuna	<b>LIBURU BIBLIKOA</b>	<b>LABURDURA</b>	<b>ZER TALDEAKO DA</b>	<b>ITUNA</b>
		<i>Joan</i>	<i>Jn</i>	<i>Ebanjelioak</i>	<i>Berria</i>
		<i>Tobit</i>	<i>Tb</i>	<i>Didaktikoak</i>	<i>Zaharra</i>
		<i>Judas</i>	<i>Ju</i>	<i>Gutunak</i>	<i>Berria</i>
		<i>1. Timoteori</i>	<i>1 Tm</i>	<i>Pauloren gutunak</i>	<i>Berria</i>
		<i>Irteera</i>	<i>Ir</i>	<i>Pentateukoa</i>	<i>Zaharra</i>
		<i>Daniel</i>	<i>Dn</i>	<i>Profetikoak</i>	<i>Zaharra</i>
		<i>Apokalipsia</i>	<i>Ap</i>	<i>Apokaliptikoa</i>	<i>Berria</i>
	2.	Nortzuk izan ziren Israelgo lehenengo erregeak?			
	Erantzuna	<i>Saul, Dabid eta Salomon</i>			
Ulermen orokorra.	1.	Esan zein multzotan dago klasifikatuta Bibliako liburuak?			
	Erantzuna	1. <i>Pentateukoa.</i> 2. <i>Historikoak.</i> 3. <i>Didaktikoak.</i> 4. <i>Profetikoak.</i> 5. <i>Poetikoak.</i> 6. <i>Jakituriazkoak.</i> 7. <i>Ebanjelioak eta Eginak.</i> 8. <i>Pauloren gutunak.</i> 9. <i>Gutunak eta apokalipsia.</i>			
	2.	Esan zein esaldi diren Gezurra eta zein diren Egia: 1. Biblia liburu bat da. GEZURRA/EGIA 2. Bibliak Jainkoak idatzitakoa liburua da. GEZURRA/EGIA 3. Kristau Bibliak bi atal nagusi ditu. GEZURRA/EGIA 4. Biblian azaltzen den historia K.a. III. Mendean hasi eta K.o. I. Mendean bukatzen da. GEZURRA/EGIA 5. Itun Zaharreko liburuak Kristo aurretik eta Itun Berrikoak Kristo ondoren idatzita daude. GEZURRA/EGIA			
Erantzuna	1- <i>Biblia liburu bat da.</i> GEZURRA 2- <i>Bibliak Jainkoak idatzitakoa liburua da.</i> GEZURRA 3- <i>Kristau Bibliak bi atal nagusi ditu.</i> EGIA 4- <i>Biblian azaltzen den historia K.a. III. Mendean hasi eta K.o. I. Mendean bukatzen da.</i> GEZURRA 5- <i>Itun Zaharreko liburuak Kristo aurretik eta Itun Berrikoak Kristo ondoren idatzita daude.</i> EGIA				

Interpretazioa -INFERENTZIAK	1.	Kokatu pertsonaia bibliko hauek dagokien <b>garaian</b> . Horretarako, oso lagungarri izango zaizkizu pertsonaia bakoitzari buruz ematen diren argibideak.		
		Paulo	Jesusen apostoluetako bat izan zen	
		Josue	Israel Herriari Kanaango lurretan sartzen lagundu zion	
		Debora	Israel Herriaren buruzagia: palmondo baten azpian haien auziak epaitzen zituen.	
		Jeremias	Jerusalengo biztanleak erbesteratuak izango zirela iragarri zuen.	
		Ana	Jainkoari eskerrak eman zizkion, Maria eta Jose Jesus haurra Jerusalem Tenpluan aurkeztu zutenean.	
	Erantzuna	<i>Paulo</i>	<i>Jesusen apostoluetako bat izan zen</i>	<i>Kristautasunaren hedapena</i>
		<i>Josue</i>	<i>Israel Herriari Kanaango lurretan sartzen lagundu zion</i>	<i>Irteera</i>
		<i>Debora</i>	<i>Israel Herriaren buruzagia: palmondo baten azpian haien auziak epaitzen zituen.</i>	<i>Epaileak</i>
		<i>Jeremias</i>	<i>Jerusalengo biztanleak erbesteratuak izango zirela iragarri zuen.</i>	<i>Erbestealdia</i>
<i>Ana</i>		<i>Jainkoari eskerrak eman zizkion, Maria eta Jose Jesus haurra Jerusalem Tenpluan aurkeztu zutenean.</i>	<i>Erromatarren garaia</i>	
2.	Jesus gure garaiko 30. urtearen inguruan hil zen. Zenbat denbora igaro zen Tesalonikan bizi ziren kristauei gutuna idatzi zen arte?			
Erantzuna	<i>20 urte.</i>			
Formaren gainerako hausnarketa	1.	1. taulak egurrezko apalategia irudikatzen du: forma honen bitartez autoreak hau adierazi nahi du: (aukeratu bat) a) Etxe guztietako apalategietan Biblia bat egon beharko litzateke. b) Biblia, liburu bakarra izan arren, 73 liburu dituen liburutegi txiki bat da. c) Bibliako liburuak gai askotaz hitzegiten dute. d) Era honetan errezago ikusten ditugu Bibliako liburuen genero literarioak.		
	Erantzuna	<i>Ongi dagoena b) aukera da.</i>		
	2.	Fijatu zaituz 2. taulan agertzen diren marrazkietan, zure ustez zer ekartzen diote testu idatziari?		
	Erantzuna	<i>Erantzun irekia: badute arrazoi estetiko bat, horrela testua ez da hain astuna egiten. Baina testuari ere gehitzen diote garai patriarkalari buruzko informazioa (Abraham artaldea zaintzen) eta Zatiketari buruzkoa (bi enborrek bi erresumak irudikatzen dituzte, nahiz ta bi izan Israel herria bakarra da).</i>		

Edukiaren gaineko hausnarketa	1.	Bibliako protagonista nagusiak Jainkoa eta Israelgo herria dira: Israelgo historiaren gertakizunak ikusita zergatik israeldarrek “Jainkoaren Herria” edo “Jainkoak hautatutako herria” bezala ikusten zuten beren burua?
	Erantzuna	<i>Erantzun irekia: israeldarrek Jainkoa beren historiaren Protagonista nagusitzat ikusten zuten. Haien historiaren gertakizunak, bai onerako, bai txarrerako, Jainkoaren borondatea ziren. Jainkoa “askatzailea”, “gertukoa” eta “salbatzailea” bezala agertzen</i>
	2.	Testuan aipatzen den Israel herriaren egoerak, zure ustez, oraingoarekin antza du? Arrazoitu
	Erantzuna	<i>Erantzun irekia.</i>

### PRAKTIKAN JARRI - OHARRAK

3. GALDERA: “multzo” hitza interpretazio desberdinak izan zituen: batzuk ulertzen zuten Bibliaren bi zatiak (Zaharra eta Berria), beste batzuk galdetzen zuten zer esan nahi zuen “multzo” hitza, liburuan hitz horrek esanahi desberdinekin erabiltzen delako.

4. GALDERA: “Biblia liburu bat da” baieztapena arazoak sortu zituen. Berez oso logikoa zen zerbait, sakoneko esanahia bait zuen eta GEZURRA zela erantzun behar zen. Esaldia beste era batera formulatuta erantzun zuzenak gehiago izango lirake. Adibidez: “Biblia liburu askok osatutako liburu bat da”.

5. GALDERA: galderaren laukiari zutabe bakoitzaren izenburua faltatzen zitzaion (PERTSONAIA, ZER EGIN ZUEN, GARAI HISTORIKOAREN IZENA eta ez data batzuk jarri zuten bezala). Hala ere emandako informazioa eta laukiena ez zuten elkar lotu kasu askotan.

7. GALDERA: galdera honen edukiaren gaineko hausnarketa egiteko, alde zuzenetik eduki beharreko ezagutzak (Jainkoaren Herria, edo hautatutako herria, Salbazio Historia, Jainkoaren Promesa edota Biblian kontatzen dena beren historiaren interpretazioa dela fede ikuspuntutik) ez zeuzkaten kasu gehienetan. Gainera frogatzea liburuaren aurrean zutelarik egin zenez, beste testu batzuetan bilatzen saiatu ziren.

8. GALDERA: 1. erduan egin genuen galdera erantzun zuten (Jesusena) eta libururik ezagutzen ez zutenek (Jesusi buruzkoak gutxienez) pelikulak aipatzen utzi nien. Orduan zailtasuna bigarren galderarekin etorri zen: idazlearen helburuaren erantzuna ez zuten ematen, batez ere formari buruzko ezberdintasuna aipatzen zuten (erantzuten zutenek!!!).

10. GALDERA: ikasleek ez zuten ulertu galdera hau, marrazkien esanahia kontatzeko eskatzen zela uste bait zuten.